**DF-R 76/2018**

## FORU DEKRETUA / DECRETO FORAL

2018ko martxoaren 20ko Diputatu Kontseiluaren Erabakiaren bidez onartu zen erregulazio harmonizatuaren mende dagoen GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN PROGRAMA ETA JARDUEREN KOMUNIKAZIOAREN AHOLKULARITZA, SORKUNTZA ETA EKOIZPEN (2018014CO300) zerbitzuak kontratatzeko espedientea.

Espediente horren lizitazioaren aurrekontua 1.399.244,00 euro da -1.156.400,00 euro da gehi % 21eko BEZari dagozkion 242.844,00 euro-, eta lana burutzeko epea 2018ko abenduaren 31era artekoa da. Erabaki horretan ebatzi zen kontratua esleitzeko prozedura irekiari hasiera ematea, eta agintzea iragarkia argitara dadin Europar Batasuneko aldizkari ofizialean.

Argitalpen horien ondoren, eskaintza bakarra jaso zen epe barruan:

- Dimensión Marketing Directo, SA.

Kontratazio Mahaiak 1. gutun-azala irekitzeari ekin zion 2018ko apirilaren 27an, eta proposamena onartutzat eman ziren. 2018ko maiatzaren 10ean Kontratazio Mahaiak onartutako lizitatzailearen 2. gutun-azalen irekiera publikoa egin zuen. Eta 2018ko maiatzaren 21ean, baita ere publikoki, 3. gutun-azalen irekiera.

Kontratazio Mahaiak baloratu ditu kontratua esleitzeko agirietan adierazitako kontuan hartu beharreko alderdiak, eta onartutako proposamena aztertuta, puntuaketa hauek lortu dira:

Mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 20 de marzo de 2018 se aprobó el expediente de contratación sujeto a regulación armonizada, de los servicios de ASESORAMIENTO, CREATIVIDAD Y PRODUCCIÓN DE LA COMUNICACIÓN DE LOS PROGRAMAS Y ACTUACIONES DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA (2018014CO300).

Dicho expediente tiene un presupuesto de licitación de 1.399.244,00 euros -1.156.400,00 euros, más 242.844,00 euros en concepto de IVA (21%)- y un plazo de ejecución hasta el 31 de diciembre de 2018, disponiéndose así mismo en el referido acuerdo la apertura de la licitación por el procedimiento abierto mediante su publicación en el Diario Oficial de la Unión Europea.

Tras dicha publicación, se presentó en el plazo habilitado al efecto una única propuesta:

- Dimensión Marketing Directo, SA.

La Mesa de Contratación con fecha de 27 de abril de 2018 procedió a la apertura del sobre nº 1, siendo las propuesta calificada como admitida. Con fecha de 10 de mayo la Mesa de Contratación procedió en acto público a la apertura del sobre nº 2, y el 21 de mayo, también en acto público, a la apertura del sobre nº 3.

La Mesa de Contratación ha valorado los aspectos expresados en los pliegos a tener en cuenta para la adjudicación del contrato y analizada la proposición admitida, la puntuación ha resultado ser la siguiente:

| **Lizitatzaileak Licitadores** | **Eskaintza teknikoa Oferta técnica** | **Eskaintza ekonomikoa Oferta económica** | **Guztira Total** |
|---|---|---|---|
| Dimensión Marketing Directo, SA. | 47,00 | 51,00 | 98,00 |

Beraz, Kontratazio Mahaiak kontratua Dimensión Marketing Directo, SA sozietateari esleitzea proposatu

En consecuencia, la Mesa de Contratación ha propuesto la adjudicación del contrato de referencia a

du. Hori dela eta, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 150.2 artikuluan xedatutako baldintzak betetzeko eskatu zaio aipatutako enpresari. Eskatutakoa bete duenez ezarritako epean, bidezkotzat jotzen da kontratua esleitzea.

Hala, diputatu nagusiak

**EBATZI DU**

**Lehenengo.-** Esleitzea Dimensión Marketing Directo, SA enpresari GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN PROGRAMA ETA JARDUEREN KOMUNIKAZIOAREN AHOLKULARITZA, SORKUNTZA ETA EKOIZPEN (2018014CO300) zerbitzuen kontratua, honako baldintza hauetan:

Prezioa, BEZik gabe: 901.992,00 euro.
BEZa, %21: 189.418,32 euro.
Prezio guztira, BEZa barne: 1.091.410,32 euro.

Lanak egiteko epea 2018ko abenduaren 31era arte izango da.

Kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa estatuko publizitate enpresena izango da.

**Bigarren.-** Xedatzea enpresa esleipendaren alde 1.091.410,32 euroko gastua, ondorengo kontu sailen kargura:

1.0130.300.227.03.01.2018: 1.091.410,32 euro

**Hirugarren.-** Kontratuaren arduradun izendatzea Diputatu Nagusiaren Alorraren Idazkaritzako burua, Ander Arzelus Aramendi jauna.

**Laugarren.-** Kontratu administratiboa formalizatzea esleipendunarekin foru dekretu hau jakinarazi eta hamabost lan eguneko epea igaro ondoren.

**Bostgarren.-** Esleitzeko ebazpen hau argitaratzea Europar Batasuneko aldizkari ofizialean eta kontratatzailearen profilean.

Foru dekretu hau behin betikoa da eta administrazio

la empresa Dimensión Marketing Directo, SA. Por ello, se ha requerido a dicha empresa el cumplimiento de los requisitos establecidos en el artículo 150.2 de la Ley de Contratos del Sector Público. Habiendo cumplimentado en plazo el requerimiento realizado, procede realizar la adjudicación del contrato.

Por todo ello, el Diputado General

**RESUELVE**

**Primero.-** Adjudicar a la empresa Dimensión Marketing Directo, SA el contrato de los servicios de ASESORAMIENTO, CREATIVIDAD Y PRODUCCIÓN DE LA COMUNICACIÓN DE LOS PROGRAMAS Y ACTUACIONES DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA (2018014CO300), en las siguientes condiciones:

Precio, sin IVA: 901.992,00 euros.
IVA, 21 %: 189.418,32 euros.
Precio total, IVA incluido: 1.091.410,32 euros.

El plazo de ejecución del contrato es hasta el 31 de diciembre de 2018.

El convenio colectivo de aplicación a los trabajadores y trabajadoras que realicen el objeto del contrato será el convenio estatal de empresas de publicidad.

**Segundo.-** Disponer a favor de la empresa adjudicataria el gasto de 1.091.410,32 euros con cargo a las siguientes partidas presupuestarias:

1.0130.300.227.03.01.2018: 1.091.410,32 euros

**Tercero.-** Designar como responsable del contrato al jefe de la Secretaría del Área del Diputado General, D. Ander Arzelus Aramendi.

**Cuarto.-** Formalizar el correspondiente contrato administrativo con la empresa adjudicataria una vez transcurrido un plazo de quince días hábiles desde la notificación del presente decreto foral.

**Quinto.-** Publicar la presente resolución de adjudicación en el Diario Oficial de la Unión Europea y en el perfil del contratante.

El presente decreto foral es definitivo y pone fin a la

bidea amaitzen du. Erabaki horren aurka, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete interesatuek, zuzenean, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, BI HILABETEKO EPEAN, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, horren aurretik, interesatu partikularrek aukera dute KONTRATAZIO ALORREKO HAUTAZKO ERREKURTSO BEREZIA aurkezteko bakarrik administrazioarekiko auzi errekurtsoaren aurretik, Kontratazio alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboari, esleipena argitaratu zen egunaren biharamunetik hasita 15 laneguneko epean. Bi kasuotan, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren edo bereziaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los Juzgados de lo Contencioso–Administrativo de San Sebastián, en el plazo de DOS MESES a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas interesadas particulares, pueden interponer, previa y potestativamente, el RECURSO ESPECIAL EN MATERIA DE CONTRATACIÓN ante el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales en el plazo de 15 días hábiles a partir del día siguiente a aquél en que se haya publicado la adjudicación. En ambos casos, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o el especial, o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente

Donostia, 2018ko ekainaren 5a / San Sebastián, 5 de junio de 2018

**DIPUTATU NAGUSIA / EL DIPUTADO GENERAL**

**Sin.:/ Fdo.: Markel Olano Arrese**